

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZUIAKO UDALA

Agustín Otsoa Eribeko Landa lehenengo alkateordea izendatzea, alkatearen eginkizunak bete ditzan

Alkatetzaren 134/2020 Dekretua

Ni, alkatea, aurtengo uztailaren 18tik 31ra egunetan, biak barne, Zuiako udalerritik kanpo egongo naiz.

Kontuan hartu da apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 23.3. artikuluan xedatutakoa eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, toki erakundeen antolakuntza, funtzionamendu eta araubide juridikoaren arautegia onartzen duenak, 47.1. artikuluan xedatutakoa.

Honen bidez, eta legeak aitortzen dizkidan eskumenak erabiliz, honako hau

EBATZI DUT

Lehenengoa: Agustín Otsoa Eribeko Landa lehen alkateordea izendatzea alkate eginkizunak betetzeko ni kanpoan naizen bitartean.

Bigarrena: interesdunari ebazpen hau jakinaraztea, egiten den lehen osoko bilkuran udalbatzari horren berri ematea eta ALHAOn argitaratzea.

Murgia, 2020ko uztailaren 27a

Jarduneko alkatea

AGUSTIN OTSOA ERIBEKO LANDA